

## Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza Batzordearen eskumenak.

Udal Araudi Organikoaren arabera honakoak dira batzordearen eskumenak:

- 1.- Pertsonal berriaren beharrak ebaluatzea, ordezkapenak eta udal organigramaren azterketa.
- 2.- Zerbitzuak antolatu eta koordinatzea (jarduketa programak, lan prozesuen arrazionalizazioa, metodoak mekanizazioa, informatizazioa, e.a.).
- 3.- Udal Erregelamendu Organikoa.
- 4.- Lanpostuen zerrendak egitea. Plantilla organikoa, Enplegu publikoaren eskaintza.
- 5.- Udal Kontuhartzaitzarekin batera lan egitea aurrekontuen aurreproiektuak lantzen.
- 6.- Pertsonalaren hautaketa prozesuaren deialdia eta garapena (baremoak, galdetegiak, hautaketa, probak, epaimahaiak, proben aplikazioa eta amaitzen ebaluazioa), dagokion zerbitzuarekiko lankidetzan.
- 7.- Barne Programazioko prozeduren deialdia eta garapena.
- 8.- Pertsonal osoaren lan egutegia egitea. Urteko oporren plana. Plantillako kolektibo desberdinentzako lansaioa, ordutegiak eta lan txandak finkatzea.
- 9.- Pertsonal erregistroa.
- 10.- Asistentzia eta puntualtasuna, estatistika eta absentismoaren kontrola. Aparteko orduak. Lizentziak eta baimenak.
- 11.- Lan diziplina eta batera ezintasunen kontrola.
- 12.- Lanpostuen sailkapena eta lansarien politika.
- 13.- Pertsonalaren egoera administratiboak.
- 14.- Prestakuntza eta birziklatze ikastaroak.
- 15.- Lan giroan azterketa.
- 16.- Laneko baldintza fisikoak, segurtasuna eta higiena. Mediki azterketak.
- 17.- Pertsonalaren ordezkariekin harremanak izatea, informazioa, kontsulta eta negoziazioa.
- 18.- Osasun Laguntza, Gizarte Segurantza, Elkarkidetzeta eta Istripu Mutuarekiko harremanak.
- 19.- Pertsonalaren ekipamendua, lan uniformeak eta arropa, babes eta segurtasuneko materiala.